




TXOSTENA

2 0 2 5



**KOOPERATIBEN
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



Kooperatiben
nazioarteko urtea
Año Internacional
de las Cooperativas

TXOSTENA

2 0 2 5



**KOOPERATIBEN
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



2025a Kooperatiben Nazioarteko Urtea izan da, Nazio Batuek hala izendatuta, eta, urtearen balantzea egiteko unea iritsita, poztasun handiz esan dezakegu oso ekitaldi positiboa izan dela eta eredu kooperatiboaren garrantzia eta inpaktua ikusarazi diren urtea izan dela.

Nabarmendu beharreko 2025eko mugarren zerrenda oso luzea da, baina garrantzi handia izan duten batzuk azpimarratu nahi nituzke. Lehenengoa KOOP2040 Gogoeta Foroa izan da, non, dozenaka lagunen borondatezko ekarpenari esker, kooperatibismoan eragin zuzena duten joera sozial berriak eta etorkizuneko erronka espezifikoak aztertu ziren. Erronka horiei erantzuteko lanildoak ere proposatu ziren, eta dagoeneko hasi den aro aldaketarako prest egoteko lau helburu estrategiko identifikatu ziren.

Nabarmentzen dut, halaber, bere garrantziagatik, Denon Artean Sariaren laugarren edizioa, non Eusko Legebiltzarrari saria eman zitzaion euskal kooperatibismoa legez eta sozialki sendotzen izandako funtsezko zereginagatik, Imanol Pradales lehendakariarekin eta hainbat Administrazio Publikotako ordezkaritza instituzional handiarekin egindako ekitaldi batean. Horri gehitu behar zaio euskal kooperatibismoak eredu ekonomiko demokratikoago, jasangarriago eta errotuago baten eraikuntzan betetzen duen papera aitortzeko euskal ganberak ekainean onartu zuen Legez Besteko Proposamena, bertan esaten denarekin errazago izango baita euskal kooperatibismoa are gehiago sendotzea.

Ekitaldi honetako beste elementu giltzarrietako bat ASETT Elkartearen eraketa izan da. Ekonomia Sozialaren sustapenerako erreferentziako erakunde berria da nazioartean, eta Kontseiluak hasieratik bultzatu du, eta laguntza ekonomikoa ematen dio.


Azpimarratu behar da Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren -ACI- Batzar Nagusia Manchesterren egin zela, eta bertara joan zen euskal ordezkaritzak Rochdale, mugimendu kooperatibo modernoaren jatorria, bisitatzeko aukera izan zuela. Bai eta beste mugarri batzuk ere, hala nola, KOOPBEHATOKIA Euskal Kooperatibismoaren Behatokian egindako aurrerapenak, KOOPAKETA gazteria euskal kooperatibismoarekin lotzeko sortutako gune berriaren lehen edizioa, ELKARLAN erakundea HAZIKOOP bihurtzea kooperatiba berriak eratzea bultzatzeaz gain enpresa berriak inkubatzeko ekintzailatza kolektiboan laguntzeko, eta Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamendu berria onartzea.

Eta hori guztia kooperatibismoa gizartera hurbiltzeko zabalkunde lan handiarekin batera.

Laburbilduz, kooperatibismorako oso urte garrantzitsua izan da, eta hori ikusten da lortutako aurrerapenetan eta egindako ekitaldi ugarietan, zeinak Kontseiluaren Osoko Bilkura osatzen duten pertsona eta erakundeen eta Kontseiluko profesionalen inplikazio eta konpromisorik gabe esker ezinezkoak izango baitziren.

Patxi Olabarria

Presidente





1. KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN osaera 7

2. Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea 11

2.1 Sustapena:

2.1.1 Denon Artean 2025

2.1.2 M8. Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago

2.1.3 Kooperatiben Nazioarteko Eguna

2.1.4 KOOP2040 Gogoeta Foroa

2.1.5 Koopaketa

2.1.6 Kooperatiben gaineko legeriari buruzko jardunaldia

2.1.7 Lidergo kooperatiboaren foroa (Brusela)

2.2 Zabalkundea:

2.2.1 YOUTUBE kanala eta "Ahots Kooperatiboak"
PODCASTA

2.2.2 Mondragon City Challengen hirugarren edizioa

2.2.3 Beste komunikazio ekintza batzuk

2.3 Lankidetzak:

2.3.1 Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak

2.3.2 ASETT

2.3.3 Euskal Kooperatibismoaren behatokia

2.3.4 Jarduera instituzionala

2.3.5 Beste ekitaldi batzuetan parte hartzea



3. Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea **39**

- 3.1 Aginduzko txostenen lanketa
- 3.2 Kotsultak
- 3.3 Euskal kooperatibismoaren aldeko legez besteko proposamena
- 3.4 Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamendu berria
- 3.5 Asmoen eta lankidetzen akordioak

4. Errolda kooperatiboaren datuak **45**

- 4.1 Kooperatiba berriak
- 4.2 Kooperatibak azkentzea: eraldaketak eta likidazioak
- 4.3 Kooperatiben errolda

5. Arbitraje zerbitzua BITARTU **49**

- 5.1 Kotsulten datuak. Adiskidetzeak. Arbitrajea

6. Erakunde partaidetuak **53**

- 6.1 Elkarlan, S.COOP
- 6.2 Elkargi, SGR.

7. 2025eko ekitaldi ekonomikoa **57**

- 7.1 Balantze Ekonomikoa eta Soziala
- 7.2 Kudeaketa Planaren betetze maila



KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN

osaera

KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN

osaera



Hau da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera 2025-12-31n:



Patxi Olabarria jauna
(Presidente/Konfekoop)



Jokin Diaz jauna
(Presidenteordea/Eusko Jaurlaritza)



Raúl Pérez jauna
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritza)




José Luis Azkue jauna
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritza)



Joseba Mariezkurrena jauna
(Kontseilukidea/Bizkaiko Foru Aldundia)



Amaia Arregi andrea
(Kontseilukidea(Gipuzkoako Foru Aldundia)



Ander Larrinaga jauna
(Kontseilukidea/Arabako Foru Aldundia)

KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN osaera



Rosa Lavín andrea
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Iñaki Nubla jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Susana Andrés andrea
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Mikel Larrea jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)




Pablo Durana jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Iñigo Albizuri jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Beñat Azurmendi jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Jon Loroño jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)

KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN

osaera



Igor Diez jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Marta Enciso andrea
(Kontseilukidea/Deustuko
Unibertsitatea)



Ainara Udaondo andrea
(Kontseilukidea/Mondragon
Unibertsitatea)




Aitziber Etxezarreta andrea
(Kontseilukidea/Euskal Herriko
Unibertsitatea)

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko langileak

2025eko ekitaldian, pertsona hauek osatzen zuten plantilla:



Belen Balerdi andrea
(Idazkari Nagusi Teknikoa)



Santiago Merino jauna
(Letradua-Aholkularia)



Ion Azpiazu jauna
(Administraria)



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea

2.1 Sustapena

2.1.1 Denon Artean 2025

Maiatzaren 28an, asteazkenean, Denon Artean Sariaren laugarren edizioko sari banaketa egin zuen KOOPERATIBEN KONTSEILUAK Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea jaso zuen saria, Imanol Pradales lehendakaria eta mugimendu kooperatiboko eta euskal gizarteko ordezkari ugari ere bertan zirela.



Sariak aitortu egiten du enpresa eredu desberdin baten alde eta sozialagoa den, aberastasuna hobeto banatzen duen eta bidezkoagoa eta justuagoa den enpresa eredu bat lortzeko aritutako pertsonen eta erakundeek egindako lana. 2018an sariaren lehen edizioa egin zen, eta orduan Jose Maria Arizmendiari eman zitzaion saria, hil ondorengo sari gisa; 2021ean, berriz, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboari (ACI) eman zitzaion, eta 2023an Europako Batzordeari.

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Edizio honetan, KOOOPERATIBEN KONTSEILUAK euskal kooperatibismoaren dimentsio instituzionalean jarri zuen fokua eta Eusko Legebiltzarra saritu zuen “euskal kooperatibismoa legez eta sozialki sendotzen izan duen funtsezko zereginagatik”.

Patxi Olabarria KOOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidenteak Eusko Ganberaren garrantzia testuinguruan jarri zuen, konfigurazio instituzionalaren oinarritzko zutabe gisa. “Legebiltzarra da legeak onartzen diren lekua, baina elkartzeko, elkarri entzuteko eta elkarrekin aurrera egiteko beharrezkoa den adostasuna lortzeko lekua ere bada. Euskadin duela 45 urte hasi ziren egungo erakundeak sortzen, eta ez da kasualitatea, orduan sortu berria zen Legebiltzarraren lehen lekeen artean Kooperatiben Kontseilu Nagusi bat sortzeko legea egotea, kooperatiben sustapena eta ordezkaritza soziala bermatzeko”.

Saria jasotzean, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea oso eskertuta agertu zen sariagatik, eta gogora ekarri zuen “Eusko Legebiltzarra eratu zen unetik bertatik egon dela inplikaturik euskal mugimendu kooperatiboarekin”.





Tejeriak azpimarratu zuen euskal ganberak, “herri subiranotasunaren gordetzaile den heinean, Euskal Herriaren iritzia islatzen duela, eta, ondorioz, kooperatiba munduaren behar eta eskaerei erantzuteko erantzukizuna berea dela sentitzen duela. Eta horixe egin du sortu zenetik gaur arte igaro den mende erdian”. Legebiltzarreko presidentek aitortu zuen “benetako pribilegioa dela sari hau eskuratu dutenetako bat izatea”.

Pradales lehendakariak Joxe Mari Arizmendiarrietaren printzipioak bizirik mantentzeko gonbidapenarekin egin zuen amaiera instituzionala. “Harentzat, lana eta enpresa pertsonaren eta gizartearen hazkundea errazteko tresna ziren. Eta hori da jarraitu beharreko bidea: proaktibitatea, hurbiltasuna eta lankidetzak publiko-pribatua, eta batez ere bizitzen ari garen mundu konplexu honetan ezberdin eta berezi egiten gaituena bultzatzea. Horregatik, denon artean aurrera egin behar da, Denon Artean sari honen izenak ondo adierazten duen bezala”.

Euskal kooperatibismoaren saria emateko ekitaldian ASETT Lehen Foroko partaideak izan ziren, eta Euskadi ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren gune bihurtu zen berriro, munduak ekarpen kooperatiboaren balioa ospatzen zuen urtean, NBEk 2025a Kooperatibismoaren Nazioarteko Urtea izendatua zuen-eta.



2.1.2 M8. Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago

Lidergoan, eraldatzeko: Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago leloa da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak – KOOPERATIBEN KONTSEILUA– eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak – KONFEKOOP– Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko erabili zutena.

Vitoria-Gasteizko Goiuri jauregian egindako ekitaldi aldarrikatzaile batean, omenaldia egin zitzaion euskal enpresa kooperatiboetan liderrak diren emakumeei. Enpresa kooperatiboetan emakumeen ordezkaritza eztaba da ezina bada ere, mugimendu kooperatiboan beharrezkoa ikusten da lidergoaren bidez gizarte solidario eta bidezkoago bat eraikitzen laguntzen duten emakume zuzendariak ikusaraztea, eta, horregatik, euskal kooperatibismoko liderretako batzuegan jarri nahi izan zuen fokua. Omenaldi horretara 76 emakume joan ziren, 58 kooperatibetako zuzendari eta lehendakari, eta Rosa Lavin KONFEKOOPeko lehendakariak eta Belen Balerdi KOOPERATIBEN KONTSEILUKO idazkari nagusi teknikoak egin zuten aurkezpena.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Omendutako emakumeen ordezkari gisa Rosa Carabel Eroski S.Coop.eko zuzendari nagusiak eta Ainhoa Lasa Emun Koop. E.ko lehendakariak hartu zuten hitza.

Elena Perez Barredo Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuordeak egin zuen irekiera instituzionala, eta Arabako Batzar Nagusietako presidente Irma Basterrak eman zion bukaera ekitaldiari. Hitzorduan, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapeneko zinegotzi Maria Nanclares ere izan zen.





Hauek izan ziren omendutako emakumeak:

Sonia Ortubai eta Alaine Andueza (ABANTAIL S.COOP); Itziar Okina (AGA, S.COOP); Mireia Muruamendiaraz eta Goretti Maturana (ARIZMENDI); Arantzazu Lagunilla eta Usoa Agirre (ARTEMAN KOMUNIKAZIOA); Laura Rodriguez eta Maialen Larrea (AUSO LAGUN S.COOP.); Miren Anduaga eta Leizuri Ormazabal (BAGABIGGAHIGA KOOP. ELK. TXIKIA); Amaia Balda eta Ainhoa Lasa (EMUN KOOP E); Rosa Marla Carabel eta Leire Mugerza (EROSKI S. COOP); Miren Karmele Artaraz eta Erika Hidalgo (GAZTAROA SARTU KOOP ELK); Karmele Acedo eta Merche Arribas (GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS S. COOP.); Laura Fuente eta Beatriz Fernandez (HAZGARRI S.COOP); Nagore Ipiña eta Amaia Agirre (HUHEZI KOOP. E); Ana Isabel Perez eta Pilar Colomer (IRSEARABA S. COOP DE INICIATIVA SOCIAL); Guruzne Ezkurra eta Pilar Carreras (ITXAROPENA IKASTOLA); Amaia Galindez eta Josune Bañales (KIRIKIÑO IKASTOLA); Natalia Elizabeth Perez eta Alba Vida (KOALAK STUDIOS); Elena Zarraga eta Nerea Alberdi (LKS S.COOP.); Idoia Mujika eta Estibaliz Ruiz de Aretxabaleta (MONDRAGON LINGUA KOOP); Olatz Albarran eta Olatz Astigarraga (PEDRO MIGUEL URRUZUNO KOOP ELKARTEA); Mariluz Ferro eta Ziortza Elorrieta (RED SOCIAL KOOPERA); Ainara Arostegi (ANDER DEUNA IKASTOLA); Itxaso Ugarte (ARESKETA IKASTOLA KOOP.ELK); Katia Beloso (ARKITECNICAS KOOP. ELK. TXIKIA); Amaia Ramos (ATEGI); Digna Gonzalez (BEXEN CARDIO); Andone Ruiz (BIHOTZ GAZTEA IKASTOLA); Ana Cristobal (COLEGIO BASAURI COOPERATIVA ENSEÑANZA); Sheyla Perez de Leceta (COMERCIAL SAN VITOR S.COOP PEQUEÑA); Maria Pilar Pol (DATABOST, SOC.COOP.PEQUEÑA); Esther Korta (DIKAR, S.COOP); Barbara Casas (EKOBIIDEAK); Karmele Pikabea (EUSKABER KOOP.S); Noelia Barruetabeña (LEA ARTIBAI IKASTETXEA); Idoia Soto (LOTURA S. COOP); Marijo Pagalday (MONDRAGON KORPORAZIOA); Irene Intxausti (PARAÍSO PÚLSAR KOOP. ELK. TXIKIA); Alaitz Tolosa (TALLERES MITXELENA, S. COOP); Meritxel Sanchez (ULMA FORGED SOLUTIONS SCOOP); Aitziber Aranburu (ZUBI ZAHARRA IKASTOLA); Edurne Aristondo (BARRENETXE, S.COOP); Maria Ortiz de Zarate (COINALDE); Amaia Salbide (COPRECI S.COOP); Aintzane Aizpurua (EREDU S.COOP); Joana Ibarretxe (ERREKA); Lurdes

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Etxezarreta (EUSKARA KOOPERATIBA ELKARTEA); Idoia Apraiz (GALBAIAN SCOOP); Erika Martinez (GOIENER S.COOP); Klaudia Lukita (GSR); Nerea Gonzalez (IMPACT HUB DONOSTIA/ SAN SEBASTIÁN, S. COOP); Mirari Zilaurren (LANA S.COOP); M^a Eugenia Puertas (OIARSO S.COOP).; Arantxa Cebas (ONDOAN S.COOP eta POLITEKNIKA TXORIERRI); Maria Teresa Marcos (OSARTEN KOOP.E); Ana Sagastizabal (SAN ANTONIO IKASTETXEA); Amaia Agirre (SARETEKNIKA S.COOP); Idoia Velasco (ROYDE S.COOP) y Mari Carmen Gil (ULMA CONVEYOR COMPONENTS SCOOP)





2.1.3 Kooperatiben Nazioarteko Eguna

Uztailaren 5ean Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatu zen, 1995etik uztaileko lehen larunbatean ospatzen baita, Nazio Batuek hala finkatuta. 2025ean, Kooperatiben Nazioarteko Urtea zenez, Erresuma Batuko mugimendu kooperatiboak antolatu zuen Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren (ACI-) Batzar Nagusia, eta bertan euskal ordezkari batzuek parte hartu zuten, KOOPERATIBEN KONTSEILUA buru zela.

ACIren Batzar Nagusia Manchesterren egiten ari zela eta, euskal ordezkariak Rochdale bisitatzera joan zen, mugimendu kooperatiboaren jaiolekua baitzen.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Kooperatiba horren historia 1844an hasi zen, Ingalaterra iparraldeko Rochdale herriko kotoi fabriketan lan egiten zuten 28 artisauk Rochdaleko Aitzindarien Sozietate Ekitatiboa lehen enpresa kooperatibo modernoak ezarri zutenean. Talde hori sozietate kooperatibo modernoaren eta mugimendu kooperatiboaren sortzaileen aitzindari izan zela uste da.



Jardunaldiaren ahalik eta zabalkunderik handiena lortzeko, jardunaldi horretan agerian uzten baita Kooperatibismoaren protagonismo garrantzitsua mundu osoan, komunikazio kanpaina garrantzitsu bat egin zen.

Horrela, Kooperatiben Nazioarteko Egunari buruzko iragarkiak eman ziren Onda Vasca, Radio Popular, Euskadi Gaztea, Naiz eta Cadena Ser irratietan. Hain zuzen ere, Cadena Ser irrati kateko asteburuko albistegian Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea elkarriketatu zuten. Gainera, Noticias Taldeko egunkarietan eta VOCENTOk euskal egunkarietan bi erreportaje zabal argitaratu ziren.

21



2.1.4 KOOP 2040 Gogoeta Foroa

Kooperatiben Nazioarteko Urtean zehar, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK KOOP2040 proiektua gauzatu du, egungo erronkak zehazteko eta horiei erantzuteko lan ildoak garatzeko.

Gogoeta prozesu horretan 60 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte, 4 hilabeteetan egindako hainbat lan bileratan. Parte hartzaileak kooperatiba eta ekosistema kooperatiboko erakundeen ordezkari gisa zetozen, baita erronkak planteatu, joerak identifikatu eta etorkizuna XXI. mendeko abangoardiako eredu ekonomiko bihurtzeko aukera dela ondorioztatu zuten inguruneetatik ere.

Gogoeta prozesu horren saioetan sortutako eztabaidan euskal kooperatibismoan eragin zuzena duten zazpi erronka espezifiko identifikatu ziren:

- Aniztasuna eta migrazioa
- Biztanleriaren zahartzea
- Talentua lortzeko lehia
- Balio sozial berriak
- Digitalizazioa eta adimen artifiziala
- Jasangarritasuna eta energia
- Etxebizitzaren krisia

Arantzazu Labeko gune inspiratzailean egin ziren urtean zehar egindako lan eta gogoeta saioak.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Urriaren 1ean saio horien ondorioak aurkeztu ziren, eta Chillida Leku aukeratu zen horretarako. Ondorioak lau bloke handitan aurkeztu ziren, eta KOOPERATIBEN KONTSEILUAK enpresa kooperatibo guztiekin partekatu zituen, etorkizun inklusibo, justu eta jasangarriago batean parte hartzera gonbidatzeko.

Horrela, lau helburu estrategiko aurkeztu ziren, dagoeneko hasi den aro aldaketa baterako prestatzeko. KOOPLab, kooperatibismoa balio sozial berrietara egokitzeko gune gisa; KOOPGertu, kooperatibismoa etorkizuneko eredu ekonomiko gisa kokatzeko; KOOPTalentuNetwork, talentu eraldatzailea garatzeko; eta KOOPEkintzailea, enplegu kolektiboa bultzatzeko.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Vocento Taldeko eta Noticias Taldeko egunkariak Gogoeta Foro horren ildo nagusiak jaso zituzten artikulu banatan.

EL CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DIBUJA EL FUTURO DEL COOPERATIVISMO PARA LAS PRÓXIMAS DÉCADAS

KOOP2040 es la reflexión impulsada por un grupo de trabajo que ha identificado tendencias, retos y oportunidades para ofrecer una respuesta cooperativa a los retos colectivos

Reportaje de Iñaki Villar / Fotografía de Javier Colmenero

El Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi es el órgano rector de las cooperativas en el País Vasco. Desde su creación en 1984, ha ido evolucionando y adaptándose a los cambios de la sociedad vasca. En su última reunión, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi ha presentado el proyecto KOOP2040, una reflexión sobre el futuro del cooperativismo en el País Vasco.

Transformar la realidad

El Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi ha presentado el proyecto KOOP2040, una reflexión sobre el futuro del cooperativismo en el País Vasco.

KOOP2040: un desafío para la próxima generación de cooperativistas

El proyecto KOOP2040 es una reflexión sobre el futuro del cooperativismo en el País Vasco. El proyecto KOOP2040 es una reflexión sobre el futuro del cooperativismo en el País Vasco.



La presentación de los resultados del proyecto KOOP2040 tuvo lugar ayer en el museo Chibola Leku en Hernani.



Los encargados de dirigir el acto fueron el presidente y la secretaria general de Kooperatibismo Euzkoakoa, Pablo Chabarro y Belén Bizarri.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.


El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad. El futuro del cooperativismo en el País Vasco se define por la necesidad de transformar la realidad.

KOOP2040: la Euskadi cooperativa que se adelanta al mañana

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación



El momento final del día de debate sobre el cooperativismo en Chibola Leku con una multitud representativa del movimiento cooperativo y institucional vasco.

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación.

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación.

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación.

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación.

En la víspera final del Año Internacional de las Cooperativas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euzkadi dio ayer un paso decisivo y presentó en Chibola Leku los resultados de KOOP2040, un ambicioso proyecto colectivo de reflexión que lidera para responder al desafío cooperativo en un mundo en transformación.

2.1.5 Koopaketa

Koopaketa ekimena, KOOOPERATIBEN KONTSEILUAK eta KONFEKOOPEk bultzatutakoa, gazteak euskal kooperatibismoarekin lotzeko gune berri gisa sortu zen. Bere lehen topaketa Mondragon Unibertsitateak Bilbon duen Dock gunean egin zen azaroaren 20an, gazteriaren eta enpresa eredu lehiakor eta jasangarri baten artean beharrezkoa zen elkarrizketa bat irekitzeko.

35 enpresa kooperatibo, ikastetxe eta toki erakundetako 100 gaztek baino gehiagok egungo erronken aurrean eredu kooperatiboa berrinterpretatzeko gogoetak eta proposamenak partekatu zituzten. Jardunaldiak ideia transbertsal bat utzi zuen agerian: kooperatibismoa ez da enpresa modu bat bakarrik, munduan bizitzeko eta kokatzeko modu bat ere bada.

Helena Gorroño gazte kooperatibisten Europako presidenteordeak eta JonKass kazetari eta musikariak belaunaldi begirada eskaini zuten, zeina hasieratik konektatu zuen. Biek kooperatibismoa aldarrikatu zuten gazteriaren kezkei (prekarietatea, parte hartze falta eta komunitate jasangarriagoak eraikitzeko beharra) erantzuteko gai den eredu iraultzaile gisa.

Ekimenak hitzaldiak, dinamika interaktiboak eta ideien trukea uztartu zituen, erreleboa hartuko dutenei kooperatibismoa hurbiltzeko. Topaketak aukera errealak erakusteko eta kezkak entzuteko aukera eman zuen, gazteriaren eta kooperatibismoaren arteko lotura indartuta.





Ekitaldi isolatua izan ez ezik, Koopaketa bokazio eraldatzailea duen gazte komunitate kooperatibista baten hasiera da, bide partekatu baten hasiera, ekonomia desberdin, justuago eta gizatiarrago batean sinesten duten gazteentzako dei bat eta etorkizun kooperatiboa gaur eraikitzen ari dela gogorarazteko bidea.

2.1.6 Kooperatiben gaineko legeriari buruzko jardunaldia

Kooperatiben Nazioarteko Urtearen esparruan, irailaren 16an, asteartean, “Kooperatibismoa jarduera sektore berrietan” jardunaldia egin zen Bilboko Azkuna Zentroan. Patxi Olabarria KOOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidenteak eman zion hasiera jardunaldiari. Topaketa horretan, Gemma Fajado Garcia doktoreak “Las sociedades cooperativas en nuevos sectores de actividad a la luz de la normativa autonómica” izeneko hitzaldia eman zuen.

Jardunaldia osatzeko, mahai inguru oso interesgarri bat egin zen, “El nuevo cooperativismo en la realidad vasca: aspectos jurídicos y prácticos” izenburupean, bost azpigai nagusi erreferentziatzat hartuta: Zerbitzu publikoetako kooperatibak, Plataformako kooperatiba digitalak, Energia berriztagarriak eta kooperatibak, Startup kooperatiboak eta Erabilera lagapen erregimeneko kooperatibak.





2.1.7 Lidergo kooperatiboaren foroa Bruselan

Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea eta Rosa Lavin KONFEKOOPEko presidentea osatutako euskal ordezkariak batek bilera estrategiko batzuk egin zituen Bruselan, euskal kooperatibismoak Europako agendan duen posizionamendua indartzeko. Lan handiko bi egun izan ziren, eta bertan Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Kooperatiben Goren Kontseiluak funtsezko bilerak izan zituzten Oihane Aguirregoitia (EAJ), Pernando Barrena (EH Bildu) eta Idoia Mendia Cueva (PSE-EE) eurodiputatuekin, ekonomia sozial eta industrialari buruzko goi mailako foroetan parte hartzeaz gain.

Kooperatiben Nazioarteko Urtearen testuinguruan, euskal ordezkariak Cooperatives Europek antolatutako bi ekitaldi nagusi hauetan parte hartu zuen: "Cooperative Leadership Forum", 2030eko eredu kooperatiboaren etorkizunean zentratua; eta "Fostering Europe's Prosperity and Industrial Transformation: Cooperatives as Drivers of Change" konferentzia, non kooperatibek eraldaketa industrialean eta jasangarritasunean duten zereginaz eztabaidatu zen.





2.2 Zabalkundea

2.2.1 YOUTUBE kanala eta "Ahots Kooperatiboak" PODCASTA

KOOP 2040 gogoeta kolektiboko prozesuarekin batera, Kooperatiben Kontseiluaren Youtubeko kanalak hainbat bideo zabaldu zituen, lan saioetan landutako gai batzuei buruzko iritziekin, hala nola "Emigrazioa eta Aniztasuna", "Balio Berriak Gizartean" edo "Laneko Balio Sozialen Bilakaera" gaien inguruko iritziekin. Era berean, Chillida Lekun egindako aurkezpenaren laburpenak ere dokumentatuta geratu dira kanalean.

Bestalde, "Ahots Kooperatiboak" podcastean beste atal batzuk gehitu ziren Elkar Lan S.Coop. kooperatiben sustapenerako elkarateak sustatutako kooperatibei buruz.





2.2.2 Mondragon City Challenge hirugarren edizioa

Apirilaren 10ean MONDRAGON City Challenge finala egin zen Arrasateko Amaia antzokian. Ekintzailetza Kooperatiboko Nazioarteko Txapelketa da, eta KOOPERATIBEN KONTSEILUAK bertan parte hartzen du. Saritutako bi lanak hauek izan ziren: 16-18 urtekoen kategorian, Ounjé (Kolonbia), eta 19-24 urtekoen kategorian, Dianor (Mexiko). Lehenengoez Pariserako bidaia irabazi dute; bigarrenek, Kanadarako bidaia.

Txapelketaren helburua da mundu osoko batxilergoko, prestakuntza zikloetako eta unibertsitate zikloetako ikasleek enpresa kudeaketako gaitasunak garatzea eta gehienez zortzi hilabeteko epean negozio eredu kooperatibo bat baliozkotzeko gaitasuna izatea. Edizio honetan 572 gaztek parte hartu zuten, 182 taldetan antolatuta eta 7 herrialde ordezkaturik. Garatutako proiektu kooperatiboak 20 izan ziren guztira.





2.2.3 Beste komunikazio ekintza batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak KOOP aldizkarian parte hartzen du aldian-aldian; KONFEKOOPEk argitaratzen du aldizkaria, mugimendu kooperatiboarekin lotuta Kontseiluak egiten dituen jarduerak eta ematen dituen zerbitzuak balioesteko. 2025ean zehar hiru artikulua argitaratu ziren: M8aren aldarrikapenari buruzkoa, “Lidergoan, eraldatzeko: kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago”; Denon Artean Sariari buruzkoa, “Eusko Legebiltzarrak Denon Artean Saria jaso du kooperatibismoari emandako bultzadagatik”; eta gogoeta prozesuaren ondorioei buruzkoa, “KOOP2040ak etorkizuneko ekonomia gidatzea proposatzen die kooperatibei”.

KOOPERATIBEN KONTSEILUAK ere hainbat akordio sinatu zituen komunikabideekin, Kooperatiben Nazioarteko Urtea dela eta, euskal kooperatibismoaren hedapena indartzeko. Horrela, Vocento Taldearekin kooperatibismoari buruzko gehigarri bat ateratzea adostu zen, eta gehigarria maiatzaren 25ean argitaratu zen; horretaz aparte, Denon Artean sariaren banaketari edo Chillida Lekun egindako KOOP 2040 ekitaldiari buruzko erreportaje batzuk edo Nazioarteko Urteko mugarri nagusien laburpen bat argitaratzea adostu zen.

Noticias Taldearekin ekitaldi batzuen informazioa ematea hitzartu zen, esaterako, M8ko eta KOOP 2040ko ekitaldiena, eta, horretaz aparte, Diario de Noticias de Álavako Araba positiboan izeneko atal berezian parte hartzea ere hitzartu zen, non urteko albiste positiboak sartzen ziren.

Era berean, lehen ASETT Foroaren testuinguruan, Radio Euskadirekin akordio bat sinatu zen, Boulevard saioan kooperatibismoari buruzko erreportaje eta elkarrizketa sorta baterako.

Goiena Taldearen Kooperatibak gehigarrian ere parte hartu zen.

Hainbat hedabidek ere, hala nola SER, El País, Gara edo Berriak, euskal kooperatibismoaren eta KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN ekitaldiak eta albisteak jaso zituzten.

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea

<https://www.ondavasca.com/euskadi-lidera-la-revolucion-de-la-economia-social-con-la-inauguracion-de-asett/>

<https://www.ondavasca.com/el-cooperativismo-vasco-ha-presentado-el-proceso-koop2040-para-afrontar-los-desafios-del-futuro/>

15/4/26, 11:59

El Correo

Las cooperativas construyen un mundo mejor

EL CORREO
23 Mayo 2025



Periodismo: J. B. - Fotos: G. B. - Redacción: J. A. y J. B.

P.3
«Apostamos por más cooperación, más alianzas y más competitividad»
Ripia Larín, presidenta de Konfeko, adelanta los objetivos del nuevo plan estratégico 2025-2030

P.5
«Donde hay un reto colectivo, hay una respuesta cooperativa»
El presidente del Correo Superior Vasco de Cooperativas, Iñaki Oñativia, repasa las virtudes de este modelo empresarial

P.8
ASETT: un foro internacional para definir el futuro de la economía social
Más de 400 personas participarán en la primera edición del Recomendando Social Economy Think Tank

El contenido que aparece en este espacio es de carácter informativo

<https://lectura.kooskaymas.com/el-correo/20250525>

1/2



2.3 Lankidetzak

2.3.1 Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak

2025eko ekitaldian 181.553,80 € bideratu dira jarraian zehazten diren programak kofinantzatzeko:

Zk.	Jarduera / Programa 2025	Erakundea
1	Berdintasun Programa – Kooperatibei Berdintasunaren arloan aholkularitza ematea	KONFEKOOP
2	Adimen Artifiziala - Irakaskuntza Kooperatibak	KONFEKOOP
3	Bidaia Teknikoa Kataluniara	KONFEKOOP
4	Bidaia Teknikoa Holandara	KONFEKOOP
5	“Una visión Cooperativa en Euskadi” bideoa	KONFEKOOP
6	Kooperatibak eta merkataritza zuzendaritza	Euskal Herriko Unibertsitatea
7	Administratzaileek arretaz jokatzeko duten betebeharra eta enpresen diskrezionalitatea aplikatzea kooperatiben administrazio organoak antolatzeko eta arrisku penalak kudeatzeko ereduak buruz hartzen dituen erabakietan	Deustuko Unibertsitatea
8	Ospatzeko eta zabalkunderako ekitaldia, Kooperatibismoaren nazioarteko urtearen eta LANKIren 25. urteurrenaren testuinguruan	Mondragon Unibertsitatea
9	Kooperatiba berrien sustapena	Elkarlan, S.COOP.
10	Finantza abalak ematea	Elkargi, SGR



2.3.2 ASETT

2025eko urtarrilaren 16an ASETT Ekonomia Sozialaren HUBaren aurkezpen ofiziala egin zen, eta, hori egin ondoren, Kooperatiben Goren Kontseiluak ASETT – Arizmendiarrrieta Social Economy Think Tank – Ekonomia Sozialaren azterketan eta sustapenean erreferentzia globaleko erakundeko kide egin zen. Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea izendatu zuten erakundeko presidenteorde.

2025eko maiatzaren 28an eta 29an ASETTen I. Foroa egin zen Donostian, eta KOOPERATIBEN KONTSEILUKO ordezkariak izan ziren bertan, eta, horrez gain, nazioarteko ordezkaritza handi bati ongietorria egin zitzaion, Legebiltzarrean harrera bat eginda, eta Denon Artean sari banaketaren aurretik Gobernuaren aurrean ere bai.





2.3.3 Euskal Kooperatibismoaren behatokia

ORKESTRA Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin elkarlanean egindako lanak aurrerapen garrantzitsua izan du 2025ean, Euskal Kooperatibismoaren Behatokiaren proiektuaren garapenari dagokionez, dagoeneko euskal kooperatibismoa modu kuantitatiboan kualitatiboan ere ikusarazteko tresna bizi gisa definitu baita. Tresna hori 2026an abiaraziko da.

2.3.4 Jarduera instituzionala

KOOPERATIBEN KONTSEILUak presentzia aktiboa izan du ekitaldi, topaketa eta jardunaldietan, kooperatibismoaren ikusgarritasuna sustatuz eta bere ordezkaritza instituzionala indartuz.

Bilera Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearekin

Maiatzaren 19an, Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea, Rosa Lavin KONFEKOOPEko presidentea eta Aitziber Etxezarreta GEZKIk arduraduna Joxerramon Bengoetxea EHUKo errektorearekin elkartu ziren. Bilera hori unibertsitatearen eta kooperatibismoaren arteko lankidetzaren indartzen jarraitzea bideratuta egon zen.





LKS Next Legalek antolatutako UIKeko uda ikastaroa

Irailaren 12an, UIKeko Uda Ikastaroen esparruan, LKSk "Kooperatiben gobernantza: kudeaketa demokratikoaren printzipio kooperatibotik enpresa kudeaketa eraginkorrera" jardunaldia antolatu zuen. Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidenteak mahai inguru batean parte hartu zuen, kooperatiba munduko beste pertsona batzuekin batera.



“Cooperatives i cultura” hitzaldia (Bartzelona)

Irailaren amaieran UNESCOk Kultura Politikei eta Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu Konferentzia (MONDIACULT 2025) egin zuen Bartzelonan, eta, konferentzia horren esparruan, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (ACI), CICOPA, Abacus Cooperativa eta ASETTekin batera, "Kooperatibak eta kultura. Aniztasuna, eskubide kulturalak eta sozialak" izeneko ekitaldi bat antolatu zuen konferentziaren aurretik. KOOPERATIBEN KONTSEILUaren ordezkari gisa, Patxi Olabarria presidenteak kooperatibismo kulturalaren indarra eta aniztasuna erakusteko esperientziei buruzko mahai-inguru batean parte hartu



zuen, eta hezkuntzari eta euskararen defentsari lotutako tradizio kooperatiboa gogoratu zuen.

Kooperatiben Biltzarra Deustun

Ikasketa Kooperatiboetako Institutuak (IEC) eta Zuzenbide Kooperatiboko Nazioarteko Elkarateak (AIDC), Zuzenbideko Euskal Akademiarekin (AVD) lankidetzan, Bazkidearen posizioari buruzko Kongresua egin zuten azaroaren 12an eta 13an Deustuko Unibertsitatean. KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea, Patxi Olabarria, batzorde zientifikoko kide izan zen, eta "Euskal kooperatibismoaren erronkak bazkideei dagokienez" hitzaldia eman zuen.

2.3.5 Beste ekitaldi batzuetan parte hartzea

Gainera, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak honako ekitaldi hauetan parte hartu du:

- Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren Forum Europa
- Mikel Jauregui Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren Forum Europa
- Emakunde Sariaren banaketa
- Ziurgabetasun Etikoa liburuaren aurkezpena. Deustuko Unibertsitatea
- Enpresabidearen hirugarren urteurrena
- KONFEKOOPen Batzarra
- Elkargiko bazkideen batzar orokorra
- Innobasquen Batzarra
- Eusko Jaurlaritzako Familia Kontseilua (KONFEKOOP)
- Hiru euskal unibertsitateetako kurtso akademikoen irekiera
- Goeren inaugurazioa (Gastronomy open ecosystem)
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu Kongresua
- Orkestraren Lehiakortasuneko Txostenaren aurkezpena
- Lankiren 25. urteurrena

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



- ALE topaketa. “Arizmendiarrietaren Eguna 2025”
- Euskaraldia 2025







Administrazioa- rekiko harremana eta hari laguntzea



3.1 Aginduzko txostenen lanketa

Aholku emateko erakunde publikoa den aldetik, Goren Kontseilua da euskal administrazio publikoen aholkularitzaren arloko erreferentzia kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako. Funtzio hori ekitaldi honetan egindako aginduzko txosten horietan gauzatu da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2026. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen dekretua.
- Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan Enpresen Gizarte Erantzukizuna ezartzeko eta langileen parte hartzea sustatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartu, eta 2025erako deialdia iragartzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Prestakuntzarako, Dibulgaziorako eta Ikerketarako laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartu, eta 2025erako deialdia iragartzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskadiko Gizarte Ekonomiako Enpresetan laguntza teknikoa emateko laguntzen deialdia egiten duena, 2025eko ekitaldirako.
- Eusko Jaurlaritzako Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomian ekiteko eta Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartu, eta 2025erako deialdia egiten duena.
- Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako enpresen arteko interkooperaziorako laguntzen deialdiaren oinarriak onartu, eta 2025erako deialdia iragartzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte



ekonomiako enpresen eta erakundeen elkarte egiturak sendotzeko laguntzak iragartzen dituen, 2025eko ekitaldirako.

3.2 Kontsultak

Euskal Kooperatibismoaren eremuan, letradu aholkulariak interpretazio juridiko orokorrari buruzko hainbat kontsultari erantzun die. Hau da kontsulta horien laburpena, kooperatiba moten arabera eta landutako gaien arabera:

KONTSULTAK (Landutako gaiaren tipologia)		KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
Eratzea	11	LAN ELKARTUA	174
Organo sozialak	25	ETXEBIZITZAK	122
Erregimen ekonomikoa	28	IRAKASKUNTZA	66
Administrazio Publikoa	11	KONTSUMOA	3
Likidazioa	193	GARRAIOLARIAK	1
Eraldaketa	39	KREDITUA	0
Hainbat gai	63	NEKAZARITZA	4
GUZTIRA	370	GUZTIRA	370

3.3 Euskal kooperatibismoaren aldeko legez besteko proposamena

Eusko Legebiltzarrak, ekainaren 19ko Osoko Bilkuran, “euskal kooperatibismoak eredu ekonomiko demokratikoago, jasangarriago eta gure lurraldean errotuago baten eraikuntzan betetzen duen zeregina aitortzeko” Legez besteko Proposamena onartu zuen, ganberako talde politiko guztien babesarekin, Voxena izan ezik. Horrek agerian uzten du Euskadin adostasun politiko zabal dagoela kooperatibismoak enplegu duina sortuz eta enpresa komunitate erresiliente eta inklusiboak sustatuz ere erronka globalei aurre egiteko duen balio estrategikoaren inguruan.

Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea



Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakia garrantzi handikoa izan zen Euskadiko kooperatibismoaren orainerako eta etorkizunerako, NBEko Batzar Nagusiak "Kooperatibek mundu hobe bat eraikitzen dute" lelopean aitortutako Kooperatiben Nazioarteko Urtearen esparruan. Ekimen instituzional honek azpimarratzen du kooperatibek funtsezko zeregina dutela pertsonak ardatz dituen, desberdintasunak murrizten dituen eta aberastasun partekatua eta oparotasun ekonomiko eta soziala sortzen dituen enpresa eredu gisa.

Onartutako legez besteko proposamenak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio kooperatibak elkarrizketa instituzional eta sozialean eragile erabakigarri gisa aitortzeko, eta herri erronkei modu berritzaile eta arinean erantzuteko aliatu gisa txertatzeko. Era berean, industria kooperatiboa bultzatzearen garrantzia azpimarratzen du, Eusko Jaurlaritza garatzen ari den industriaren aldeko apustuaren esparruan. Gainera, ekintzailetza kooperatiboa bultzatzeko, ekonomia sozialari buruzko Europako gomendioekin lerrokatutako estrategia garatzeko eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin





eta KONFEKOOPEkin batera ekimen estrategikoetan lan egiten jarraitzeko konpromiso zehatzak jasotzen ditu.

Egiturazko eraldaketa handiek, krisi globalek eta lurraldean errotutako eredu ekonomiko erresilienteak bultzatzeko beharrak markatutako testuinguruan, Legebiltzarrak euskal kooperatibismoaren etengabeko ekarpena azpimarratu zuen: euskal enpresa kooperatiboek sortutako enplegu kopurua % 9 igo da 2021etik, zuzeneko 61.000 enplegu sortu baititu, BPGren % 10 baino gehiago izatera iritsita. Ekimenak, era berean, azpimarratzen du garrantzitsua dela kooperatibismoaren inpaktuaren gaineko datuak zehaztasun handiagoz agertzea Eusko Jaurlaritzaren estatistika programetan.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak oso positiboki baloratu zuen akordioaren edukia, eredu sozioenpresarial kooperatiboaren azken aurrerapenak eta datozen urteetan izango duen zeregin estrategikoa aitortzen baititu, eta enpresa kooperatiboak sortzea, sendotzea eta nazioarteratzea sustatzen jarraitzeko lankidetzak publiko-kooperatiboan lanean jarraitu behar dela azpimarratu zuen.

3.4 Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamendu berria

Gobernu Kontseiluak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak proposatuta, Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamendu berria onartu zuen azaroaren 25ean, ekonomia soziala bultzatzeko. Horrekin, euskal kooperatibismoak tresna juridiko berri bat du orain, sozietate kooperatiboaren egungo beharrei erantzuteko. Araudi berriak kooperatiben lege esparrua eguneratzen eta garatzen du, eta enpresa eredu berriak sustatzen ditu, ekonomia sozialaren motor gisa duen zeregina indartuta eta erregelamendua gero eta globalizatuagoa eta aldakorragoa den ingurune baten erronketara egokituta.

Berrikuntza nagusien artean, erregimen sozietarioaren eta ekonomikoaren funtsezko alderdiak arautzen ditu, hala nola jarduera kooperatibizatuan parte hartzea, bazkide izateari uztea, ekarpenen itzulketa, galeren egozpena eta administratzaileen ordainketa. Gainera, sektore emergenteetan kooperatibak

Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea



sortzea errazteko figura juridiko berriak sartzen ditu, eta berdintasuna eta gobernu organoetako presentzia orekatua sustatzen ditu.

Testu berriak aurreikusten du, halaber, heziketa eta sustapen kooperatiborako derrigorrezko kontribuzioa (IPDK) hondamendi naturalen ondorioak arintzeko erabili ahal izatea, hala nola berriki pairatutako DANaren ondorioak arintzeko, eta batzarren eta kide anitzeko organoen funtzionamendua errealitate digitalera egokitzen du, batzarrak eta organo horien bilerak telematikoki egitea ahalbidetzeko.

Erregelamendu horrek, hain zuzen ere, abenduaren 20ko 11/2019 Legea eta haren aldaketak garatzen ditu, sektoreko erakunde nagusiek, hala nola Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, egiten dituzten ekarpenak txertatzeko.

Araudi berria indarrean sartzearekin batera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak beste pauso bat eman du eredu kooperatiboa finkatzeko, garapen ekonomikorako eta kohesio sozialerako tresna gisa, Euskadin kooperatiben segurtasun juridikoa eta lehiakortasuna bermatuta.

3.5 Asmoen eta lankidetzen akordioak

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak sinatutako Asmoen eta Lankidetzen Akordioan jasota dagoen bezala, 2025eko martxoaren 27an Akordioaren Jarraipen Batzordea bildu zen Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan. Bertan, Akordioaren edukia betetzean aurreko urtetik izandako aurrerapenak jaso ziren, eta, aldi berean, garatu gabe zeuden gaiak eta ez garatzeko arrazoiak aztertu ziren, bai eta hurrengo ekitaldirako lan ildo berriak adostu ere.



Errolda kooperatiboaren datuak



4.1 Kooperatiba berriak

2025EAN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA BERRIAK, KOOPERATIBA MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Mota / Clase	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
LAN ELKARTUA	122	11	47	64
KONTSUMOA	8	-	4	4
NEKAZARITZA	3	2	-	1
ETXE BIZITZAK	17	2	13	2
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	2	-	2	-
MISTOAK	1	-	-	1
GUZTIRA	153	15	66	72





4.2 Kooperatibak azkentzea: eraldaketak eta likidazioak

Goren Kontseiluari legez esleitutako funtzioetako bat da kooperatiben azkentze prozesuetan esku hartzea, kooperatiba formulari dagokionez. Esku hartze hori eraldaketa sozietarioak homologatzeko edo kooperatibak likidatzeko espedienteak izapidetuz gauzatzen da. Izapidetutako espediente guztietatik, honako erabaki hauek hartu dira:

LIKIDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	49
ETXEBIZITZAK	26
NEKAZARITZA	2
GUZTIRA	77

ERALDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	9
GUZTIRA	9



4.3 Kooperatiben errolda

INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK GUZTIRA, 2025-12-31N*

Mota / Clase	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	112	55	29	28
KONTSUMOA	77	7	26	44
KORPORAZIO KOOPERATIBOAK	1	-	-	1
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	45	9	12	24
IRAKASKUNTZA	102	12	47	43
ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK	4	2	1	1
MISTOAK	46	8	9	29
ENPRESA ZERBITZUAK	52	14	13	25
ZERBITZU PROFESIONALAK	38	6	19	13
LAN ELKARTUA	2.825	360	1.305	1.160
LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA	3	-	-	3
ETXEBIZITZAK	488	95	316	77
GUZTIRA	3.793	568	1.777	1.448

KOOPERATIBAK GUZTIRA, MOTAREN ETA LURRALDEEN ARABERA, 2025-12-31N*

Mota / Clase	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
KOOPERATIBAK	1.965	339	903	723
KOOPERATIBA TXIKIAK	1.828	229	874	725
GUZTIRA	3.793	568	1.777	1.448

*Iturria: Koperatiben Erregistroa.



Arbitraje
zerbitzua
BITARTU



5. Arbitraje zerbitzua BITARTU

Euskadiko Kooperatiben Legeak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari esleitzen dizkion funtzioetako bat da arbitraje bidez esku hartzea kooperatiben artean sortzen diren auzietan, kooperatiben eta bazkideen artean sortutakoetan edo kooperatiba bakoitzaren barruko bazkideen artean sortutakoetan. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak euskal mugimendu kooperatiborako arbitraje prozedura administratzeko lana BITARTU Arbitraje Kooperatiboko Auzitegiaren esku uzten du, arbitrajea gatazkak judizioz kanpo ebazteko tresna osagarria baita. Eta hori egiteko, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko Legeak, maiatzaren 20ko 11/2011 Legeak aldatu zuenak, jasotzen dituen zuzenbide pribatuko arauetan oinarritzen da, baita Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2023ko uztailaren 20an Osoko Bilkuran onartu zuren Arbitraje Kooperatiborako Erregelamenduan ere. Arbitraje sistema bat da, zeina, azken batean, euskal sozietate kooperatiboetan sortzen diren gatazkak konpontzen lagundu nahi duen, bide judiziala baino azkarragoa, espezializatuagoa eta ekonomikoagoa den bide batetik.



5.1 Kontsulten datuak. Adiskidetzeak. Arbitrajea

KONTSULTAK (Aztertutako gaien arabera)	
BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	
Informazio eskubidea	25
Zigor erregimena	5
Bazkideen eta lan eskubideak	13
ORGANO SOZIALAK	
Erabakiak aurkaratzea	5
Beste gai sozietario batzuk	15
ARAU BIDE EKONOMIKOA	
Diru kopurua erreklamatzeko baja sozietarioagatik	48
Beste gai ekonomiko batzuk	2
HAINBAT	6
GUZTIRA	119

KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	41
ETXEBIZITZAK	59
IRAKASKUNTZA	9
KONTSUMOA	0
GARRAIOLARIAK	6
KREDITUA	0
NEKAZARITZA	4
GUZTIRA	119



KONTZILIAZIOAK	
Ekarpenak itzultzea	0
Informazio eskubidea	2
Diru kopurua erreklamatzeko	6
Bazkidea izateari uztea	2
Eskubide sozioraburak	1
Etxebizitzeko Kooperatibako plaza finkatzea	1
Bajareko kalifikazioa	1
Bazkideari kalte ordaina	1
GUZTIRA	15

ARBITRAJEA	
Diru kopurua erreklamatzeko	6
GUZTIRA	6

Alejandro Elejabarrieta BITARTUko presidentea Cadena SER Euskadin elkarrizketatu zuten maiatzeko.

[https://cadenaser.com/
audio/1746265539591/?onetap=1&prod=REG&event_log=go](https://cadenaser.com/audio/1746265539591/?onetap=1&prod=REG&event_log=go)



Erakunde
partaidetuak



6.1 Elkarlan, S.COOP

ELKAR LAN, S.COOP. bigarren mailako kooperatiba bat da, eta, 2003an eratu zenetik, bere helburua eta azken xedea izan da enpresa kooperatiboak sustatzea eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa sortzea eta garapen ekonomikoa eta soziala lortzea. Bi hamarkada baino gehiago euskal kooperatibismoaren sustapenean erreferente izan ondoren, 2025ean misio hori modernizatzeko, zabaltzeko eta proiektatzeko aurrerapauso bat eman du: ekintzailatza kolektiboan begirada berritzaile, digital eta jasangarriago batekin laguntzea. Horrela, 2025ean **HAZIKOOP** sortu zen, Euskadi ekonomia sozialeko erreferente bihurtu duen espiritu kooperatiboa lantzen jarraitzeko.

Marta Areizaga da etapa berriaren zuzendaria. HAZIKOOP enpresen sustapenerako kooperatiba bat da, eta bertan, Elkar Lan, S. COOP.en bidez orain arte egindako zerbitzuez gain, enpresa proiektuen inkubagailu eta azeleratzaile bihurtzen da.

Horretarako, Estatutuak kooperatiba berrira egokitu dira, zeina Bilboko Bat dorrean, ekintzailatzarako den eraikinean, aurkeztu baitzen abenduaren 16an.





Lurralde Historikoa	2025ean sortutako kooperatiba berriak	2025ean sortutako enpleguak
Araba	13	39
Bizkaia	40	88
Gipuzkoa	65	144
GUZTIRA	118	271

* 2025ean sortutako 153 horietatik 118 Elkar Lan S. Coop.ek sortu zituen

6.2 Elkargi, SGR

Kooperatiben Kontseilua Elkargiko bazkide babeslea eta Elkargiko Administrazio Kontseiluko kidea da, erakunde partaidetu den heinean, eta Belen Balerdi Ozaeta Goren Kontseiluko idazkari nagusiaren bidez parte hartzen du bertan. Elkargik 23.200 enpresa bazkide baino gehiago ditu gaur egun, enpresa horietarako zerbitzuak ematen ditu, enpresa ehunari bere zeregin finantzarioaren profesionalizazioa hobetzen laguntzeko.

Elkargik %15,5eko hazkundearekin eta 480 milioi eurotik gorako finantzazio jarduerarekin itxi zuen 2025eko ekitaldia. Kopuru horretatik, %40 inbertsio proiektuetara bideratu da. Adierazle horrek berresten du enpresa inbertsioa suspertzen ari dela eta hazkunde ekonomikoaren motor gisa finkatzen ari dela. Azken urteetako digitu bikoitzeko bilakaera jarraitu izan da aurrerapen horren testuingurua, erakundeak emandako finantzaketa ia bikoiztu egin baita 2018arekin alderatuta, orduan 250 milioi eurora iritsi zen-eta.

10 milioi euro baino gehiagoko balioa sortzeari esker, Elkargiren kaudimena % 17ra arte indartu ahal da, Espainiako Bankuak eskatutakoa (%8) baino maila bi aldiz handiagora iritsita. Posizio sendo eta egonkor horrek bermatzen du enpresei eta profesionali egungo eta etorkizuneko behar finantzarioetan laguntzen jarraitu ahal izatea.



2025ean gobernantzaren gaiari buruzko hausnarketa prozesu bat bultzatu da Elkargin, lege eskakizunei dagokienez berrikuntza guztiak kontuan hartuta, batez ere Espainiako Bankuarenak. Hala, lau batzorde eratu ziren: exekutiboa, estrategikoa, kontrola eta auditoria, eta izendapenak eta ordainsariak.

Elkargik 1.200 ordezkari baino gehiago elkartu zituen apirilean egindako enpresa topaketan: enpresa gerenteak, enpresa elkarteetako eta finantza erakundeetako arduradun gorenak, bai eta erakundeetako ordezkariak ere, Quo Vadis Europa? izenburupean egin den 35. Enpresa Topaketan. Mundu ordena berria izan zen ekitaldiaren ardatz nagusia, eta Josep Borrellek, Juan Verdek, Jose Manuel Garcia-Margallok eta Enrico Letta Italiako lehen ministro ohi eta “Much more than a market” txostenaren egileak parte hartu zuten bertan.



2025eko ekitaldi ekonomikoa



7.1 Balantze Ekonomikoa eta Soziala

2025	GAUZATUA	Aurrekontuan jasotakoa
SARRERAK	1.254.156 €	1.257.817 €
Diru sarrera arruntak	695.786 €	695.786 €
Egitura Sarrerak	488.531 €	488.531 €
Beste diru sarrera batzuk	68.839 €	73.500 €
GASTUAK	1.320.797 €	1.257.817 €
Langileen gastuak	259.379 €	259.037 €
Funtzionamendu gastuak	103.702 €	104.625 €
Zuzeneko Gauzatzeen gastuak	469.185 €	405.624 €
Egitura gastuak	488.531 €	488.531 €
Emitza	(66.641) €	€



Itzulera ratio batzuk

Parlamentuak finantzatutako euro bakoitzeko (Kooperatiben Goren Kontseiluaren jarduerarako), 5,78 €-ko balio soziala sortu da 2025ean, eta 3,35 €-koa 2024an.



Efizientziaren analisia eta balio banaketa

2025. urtean, egindako jardueraren ondoriozko itzulera balio soziala (VSR) 5,78 €-koa izan zen Parlamentuak emandako euro bakoitzeko. Zifra hori oso igoera esanguratsua da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, orduan VSR 3,35 €-koa izan baitzen finantzatutako euro bakoitzeko.

Bilakaera positibo horren arrazoia da, batez ere, 2025ean jarduera gehiago egin zirelako eta jarduerak askotarikoak izan zirelako, eta horri esker inpaktu sozial handiagoa sortu ahal izan da. Era berean, erabakigarria izan da FAECetik diru sarrera gehiago etorri izana, horrek baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzea eta balio sozial handiagoa sortzea erraztu baitu. Oro har, faktore horiek modu erabakigarrian lagundu dute jasotako finantzaketa publikoaren etekin soziala hobetzen eta gizarte osoan duen inpaktua maximizatzen.



7.2 Kudeaketa Planaren betetze maila

2025eko kudeaketa planaren ebaluazioa positiboa izan da. Planean garatu beharreko bost erronketako bakoitzean, garatu beharreko neurri batzuk zehaztu ziren, eta honako hau izan da horien betetze maila.

1. Erronka. Kooperatiba kopurua handitzea. Lau neurri identifikatu ziren, eta horietatik %100 egin dira.

2. Erronka. Kooperatibismoaren ikusgarritasuna hobetzea eta gizartean harrera hobea edukitzea. 16 ekintzetatik %68,75 egin dira, eta %31,25 prozesuan daude.

3. Erronka. Kooperatibismoari buruzko ezagutza neurtzeko sistema bat garatzea. Bi helburuetatik bat egin da, beraz, %50 osatuta dago eta gainerakoak garapen fasean daude.

4. Erronka. Administrazio publikoen funtsezko aliatua izatea kooperatibismoaren garapenean. Bost ekintzetatik hiru egin ahal izan dira, bi prozesuan daude eta bi ez dira hasi, hau da, %50 egin da, %7 prozesuan dago eta %33 hasi gabe dago.

5. Erronka. Eginkizunen garapenean aurrera egitea eta modernizatzea. Identifikatutako 9 neurrietatik zazpi gauzatu dira eta bi prozesuan daude; beraz, %77,78 egin dira eta %22,22 prozesuan daude.

Laburbilduz, kudeaketa planaren konpromisoen %97,22 garapen fasean daude edo dagoeneko egin dira.